



HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA TXOSTENA

Donamartiriko Herriko Kontseilua 2018ko irailaren 11n bildu zen, 19:00etan, Antton LARRABURU jaun auzapeza mahaiburu.

Hor zirenak: LARRABURU Antton, ARMENDARIZ Alain, APHECETCHE Alain, BORDARRAMPE Xalbat, CHABAGNO Inès, HARISMENDY Emmanuelle, LADEUIX Jean-Pierre, MINONDO Mirentxu, POCHELU Bernadette, POCHELU Didier.

Falta zirenak: /

Bilkurako idazkaria: HARISMENDY Emmanuelle Bilkuraren hastapena: 19:10ean

1/ Memento batez falta izanen den langile baten ordezte

Posible da kontratupeko langileak hartzea arrazoi hauengatik memento batez falta izanen den funtzionario edo kontratupeko langile baten ordezteko:

- zati denborako lanaldia,
- urteko oporrak,
- eritasun geldialdia, eritasun larri edo luze batengatik,
- geldialdi luzea,
- amatasun edo adopziorako geldialdia,
- burasotasun geldialdia edo buraso presentzia geldialdia,
- familia-elkartasun edo zerbitzu zibila edo nazionala konplitzeko geldialdia,
- soldadugora deitua izatea, edo erreserba militarren karietara segurtasun zibileko edo osagarri segurtasun lanetara joan behar izatea,
- lurraldeko funtzio publikoko kontratuzko enplegatuei aplika daitezkeen arauak aplikatuz erregulariki eman beste geldialdiak.

Herriko Kontseiluak auzapezari aho batez eman dio ordezkapen horiei dagozkien lan kontratuen izenpetzeko baimena.

2/ Baserri-alokatzea herriko larreetan

René IRIGOYEN jaunak nahi luke Galarregiko B77. lursailaren alokatze kontratua hautsi 2018/12/31n.
Gérard PAGADOY jaunak lursail hori alokatu nahi lukeela jakinarazi digu.

Laborantza Batzordeak, beste laborari bat lursail horretaz interesatua ez dela segurtatu ondoan, PAGADOY jaunari aldeko iritzia adierazi dio.

Herriko Kontseiluak aho batez erabaki du lursail hori Gérard PAGADOY jaunari alokatuko diola baserri-alokatzeko kontratu baten bidez.

3/ Herriko diru-laguntzen ematea

Auzapezak oroitarazi du aurreko diru-laguntza emanen zaiela goi mailako ikasketak egiten dituzten ikasle bakoitzari, 2018/2019 ikasturtearendako.

100 € emanen zaie ikasle hauei:

APHECETCHE Laetitia/ Bonetbelche Maitane/ Chassaigne Lucas/ Echeverz Marion eta Camille/ Garat Xabier/ Harismendy Jon/Ladeuix Anita/ Oillarburu Jon eta Julen/ Ospitaleche Leire/ Oyharçabal Magali/ PELLENC Lucie/ Pochelu Terexa eta Pantxika /Narp Michèle/Pochelu Maurine

Herriko Kontseiluak aho batez finkatu du 100 €-ko herriko diru-laguntza emanen dela 2018/2019 ikasturtearentzat.

6/ Gainerako gaiak

- ✚ **Helbideratzeaz eta toponimiaz puntua**
- ✚ **Linky kontagailu komunikatzaileen hedatzea**
- ✚ **Bilketaren erreformaz puntua**
- ✚ **Ibilketaren Lekuko Planarentzat bilkura**
- ✚ **Obrez puntua**
- ✚ **hTHPz puntua**
- ✚ **HeBHeSen plantan ezartzeaz puntua**
- ✚ **Donoztiriko eskolan lanpostu erdi baten hestea**

Bilkura 20:45ean bururatu da

2018/04/17an afixatzeko ikusia, Lurralde Elkargoaren Kode Nagusiko L.2121-25. artikulua preskripzioen arabera

Auzapeza,